JOSE IGNACIO ARANAREN OMENEZ

Azkoitia, 1996-XII-20

JOSE IGNACIO ARANAREN MENDEURRENA

Azkoitia, 1996-XII-20

Nerea Zubizarreta,
herriko alkate anderea

Ohore bat da guretzat, zuek gaur gela historiko honetan hartu ahal izatea.

1982an hemen bildu zineten, Vicenta Moguel, lehengo emakumezko euskal idazle garrantzitsua omentzeko.

Gaur berriz, beste pertsonaia garrantzitsu bat gogoratzera gatoz, Luis Villasanteren esanetara, "eusko-zaleen artean jakintsu eta ospetsuenetako bat".

Jose Ignacio de Arana e Irazusta Baroikua etxean jaio zen 1838ko maiatzaren 26an, (orduan Sta. Clara, 22) eta gaur betiko oroigarri gisa harri bat jarri dugun tokia.

Gero, ama hil ondoren, Kale Nagusiko 95ra aldatu zen. Hemen orain dela gutxirarte haren iloba Rafael 'relojero' bezala ezaguna zen pertsonaia herrikoia ezagutu ahal izan genuen.

Baina nire asmoa ez da hemen Arana jaunaren bizitza kontatzea. Eta gela honetan oso ondo ezagutzen duten jakintsuak daudenez gero, beraiei emango diegu hitza.

Gure hizkuntza saindu eta zabaltzeko egiten duzuen lan guztia eskertu nahi genizueke. Eta berriz, laster ospatuko dugun, José Francisco de Aizkibel jaunaren jaiotzaren bigarren mendeurrena gurekin egotera gonbidatzen zaituztegu. Honek gaur omendutako Arana jaunarekin batera, ortografiaren lehenengo arauak eta bilduma bibliografiko garrantzitsua egin zituen.

Guztioi, ongi etorri eta eskerrik asko.

JOSE IGNACIO ARANA, BIBLIOGRAFOA

Azkoitia, 1996-XII-20

Jose Antonio Arana Martija

Atzo bete ziren ehun urte Jose Ignacio Arana Irazusta Oñako jesuiten komentuan hil zenetik, eta gaur Azkoitian, 1838an jaio zen herrian eskaintzen diote jaioterriak eta Euskaltzaindiak mendeurreneko omenaldia. Euskal idazle, olerkari, hizkuntzalari eta historiagile izan zen azkoitiar handi honi dagokion biografia eta lanen ikerketa/azterketa azpeitiarra den Patxi Altuna euskaltzain adiskideari dagokio eta badakit hurbil izaten diren herri arteko lehiakeriak ez duela inolako eragin maltzurrik izango azpeitiarrarengandik azkoitiarrarenganako, alde batetik Patxi Altunak ikerketetan duen seriotasuna ezagutzen dudalako eta bestetik bi herri horien bitartean Loiola dagoelako, jesuiten jatorria eta ardatza, non oinarritzen den, besteak beste, Altunak Aranarekiko aspaldidanik agertu duen estima, maitasun eta benerazioa. Izatez, bera izan zen mendeurren honen berri eman ziguna, zerbait egin behar zela etengabe eta fermuki gogorarazi diguna eta niri dagokidanetik mahai honetan eseri nauana.

Aita Jose Ignacio Arana historiagilea zela esan dut eta zerbait gehitu behar diot pertsonaiaren xehetasun honi: liburuzalea ere bazela. Gure gaurko omenduak, ñabardura honekin begiratuta, historia alorrean beste ikuspegi bat ere azaltzen digu, bibliografiarena, hain zuzen. Eta hau da nik ukituko dudan gaia, izenburuan esaten denez, Jose Ignacio Arana, bibliografoa. Aspaldidanik nerabilen eskuartean Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako artxiboan datzan aita Aranaren eskuizkribu bat, hots, *Ensayo de una bibliografía bascongada*, argitaratu gabea. Baneukan gogoa azterketa-gai honi behingoz eusteko eta hara non Patxi Altunak, gaurko ospakizunerako eskaria eta gomita eginaz, eman zidan parada nire aspaldiko asmoa betetzeko. Eta gaian sartu baino lehen egin dezadan adierazpen eta aitormen bat: Jose Ignacio Arana Irazusta azkoitiarra eta jesuita izan zela XIX. mendeko bibliograforik handienatarikoa.

Jose Ignacio Arana 1896.eko abenduaren 19an hil zenean, heriotzaren berri eman zuten orduko egunkari eta euskal kulturako aldizkari batzuk. Nola ez hainbat olerki eta idazlan argitaratu zizkion *Euskal Erria* aldizkariak. Baina beste aldizkari bat azpimarratu nahi nuke: datorren urteko urtarrilaren 3an beteko dira ehun urte R.M. Azkuek *Euskalzale* aldizkariaren lehen alea atera zuenetik. Ezagutzen zuen Azkuek aita Arana Bilbotik eta Oñatik elkarri gurutzatutako gutunetan ari izan baitziren euskararekiko eztabaidetan. 1896.eko

otsailaren 14ean igorri zion Aranak Azkueri *Arte métrica bascongada o tratado analítico de la versificación Euskara* izeneko eskuizkribua, 1872an prestatzen hasi zena (1). Beraz, aita Arana hil zenean aipatu aldizkarirako agindu zion Azkuek aita Felipe Zugatzaga Gallarzagoitiari nekrologia idatz zezala eta hala egin zuen jesuita honek eta Azkuek *Euskalzalen* argitaratu (2). Nekrologia honetaz baliatu naiz Jose Ignacio Arana bibliografoaren lana urteka eta tokika taiutzeko. Baina zerbait gehiago ematen digu Zugatzagaren idazlenak, hots, Jose Ignacio Aranaren bibliografia labur bat, beraz, berak argitaratutako liburu eta liburusken zerrenda, 1863tik 1896ra. Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographian* askoz ere titulu gehiago agertzen diren arren, zazpi ematen dizkigu Zugatzagak Jon Bilbaok ematen ez dituenak:

1. "1863 *Corona poética* deritson liburuan, zazpi neurtitz. Barcelona, Escolá."

2. "1868 *Seminario Católico* deritson albistarian, neurtitz bi. Vitoria."

3. "1870 *Vidas de algunos claros varons guipuzcoanos de la Compañía de Jesús*. Tolosa, Modesto Gorosabel", 448 orr. 18,5 cm. Aita Zugatzagak dioenez, Ramon Garcia eta A. Lizargarate jesuitekin alkarturik erderaz egina (3).

4. "1875 *Catalogus RR.PP. Praepositorum Societatis Jesu*. Toulouse, Bonnal."

5. "1889 *Lo Gayter del Llobregat* deritsan liburuan euskaraz dagoena. Barcelona, S. Roviralta."

6. "1891 *Liberalkeria pekatua da*, Sarda jaunak egina euskeratua. Barcelona, La Hormiga de Oro."

7. "1893 *Gertaeraren oroimen betikorako* asten den izkuntza askotako liburuan euskarazkoa. Tirol, Austria."

Izenburu hautetaik aparte, Jon Bilbaok aipatzen ez dituen Aranaren idazlan oso batzuk ere ematen dizkigu Azkuek *Euskalzalen*:

8. "Done Iñigo Loiolatarraren jaiotza ta aurzaroa" (1897-7-29, 242).

9. "Guadalupeko Andra Mariari" (1899-9-14, 292-293) Klaudio Jauregi, Hondarribiko organistaren doinuarekin.

---

(1) ALTUNA, Patxi: "Tratado de métrica vasca (1872)". *Fontes Linguae Vasconum*, 1992, enero-abril, n.º 59, 119-165. ARANA, Jose Ignacio: "El amalauco y el amaseico o sobre el sonetillo y sonetos euskaros propios e impropios". *Euskal Erria*, 1883, VIII, 41-47.

(2) ZUGAZAGA: "Jesusen Lagundiko Aita Aranatar Jose Iñigo euskalzale argiaren bizibani laburra". *Euskalzale*, 1897, I, 229-230, 234, 253-254.

(3) ARANA, Jose Ignacio: Antoine d'Abbadieri gutuna, Zarautz, 1870-10-30. 500/600 orrialde izango dituela diotso. Urduñatik gutuna, 1871-4-8: Bidali dio Abbadieri liburua. Jon Bilbaok egile gabe ematen du, "por unos bienhechores" tituluari gehituz.

Sabino Arana eta Antonio Arginzoniz jaunekin batera *La Abeja* aldizkaria (1889-1890) kaleratu zuen Azkuek. Hemen ere (1890-1-2) Jon Bilbaok aipatzen ez duen Aranaren latinezko lan bat argitaratu zen: "In laudem praeclari Domini Petri Novia de Salcedo".

Bestalde, eta hauek ere ez dira Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographian* agertzen, Jose Manterolak argitaratu zituen *Cancionero Basco* delakoan (1880-III, 270-297) Jose Ignacio Aranaren biografia laburra eta "Amarreko" eta "Zortziko" batzuez gain, "Dies irae" gipuzkerara itzulita (1867), "Juan Sebastian Elkano getariar jaunari mundua jira-biratzen. Euskal kanta" eta "Gurutzearen garaitupena euskaldunakin Nabas-en"

Jose Ignacio Aranarena ez den titulu bat ematen digu Jon Bilbaok, hots, Nicolas Jose Azara eta Perera jaunari zuzendutako omenaldi liburu baten agertzen den "Dialecto antiguo guipuzcoano" izeneko lana, 1856an Madrilen argitaratua, Aizkibel beste azkoitiar batena dena. Baina Aranarenak diren lanak —eta ez direnak— lerrokatzea eta aztertzea nire mahaikide den Patxi Altunari dagokio eta berari uztiko diot horren ardura. Ni, beraz, banoa nire zereginera.

Bibliografia eremuan sartu aurretik, Jose Ignacio Arana Zarautzen eta Urduñan bizi izan zen urteetako giro politikoa aipatu nahiko nuke, bere inguruan ibili ziren karlistek badute zerikusirik euskal bibliografiarekin eta. Azkoitian eta Azpeitian gertatutakoak emango ditut labur. Gai honetaz luze eta sakonago zerbait idazteko asmoa dut, ugaria baita bildu dudan dokumentazioa. Baina oraingoz bi karlista famatuak aipatuko ditut: Agustin Jauregi eta Jose Ignacio Aldalur.

Liberalen eskuetan zeuden orduko Diputazioa eta Batzar Nagusiak. *Registro de Juntas Particulares que esta M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa ha celebrado en la M.N. y L. Villa de Tolosa los días 16 y 17 de mayo de 1872* (4) delakoan giroaren azalpen izugarria ematen da: 1869an hasitako matxinada ez zela politikoa esaten da klerikala baizik. Nazioak emandako erakundeen aurkako konspirazioa zela, apezek eragindakoa. 1870ean armekin altxatu ziren apezek, lasai jarraitzen dutela karguetan eta herbesteratu baziren ere, amnistiarekin itzuli direla salatzen da. Izena aipatu gabe, apezpikua zen Diego Mariano Alguacil jaunari atxekitzen diote errua eta Gobernuari Gasteizko Apezpikutza kentzea eskatzen diote. Urte pare bat lehenago egin zen epaiketa batean kondenatuak izan ziren Pedro Aldalur, Azkoitiko parrokoa, Agustin Jauregi, Azpeitiko parrokoa eta beste batzuen artean Jose Ignacio Aldalur Azpeitiko organista. Agustin Jauregi Donostiako espetxean sartu zuten eta Aldalur anaiak ezin izan zituzten atxilotu herbestera menditik joanda zirelako. Epaiketako paperetan iheslari gisa agertzen dira.

(4) "Secretario Joaquin de Urreiztieta" agertzen da azalean, eta "Tolosa. En la Imprenta de la Provincia. 1872", 22 orr. 29,5 × 20 cm.

Lehendabizi Agustin Jauregirenak aipatuko ditut. Azpeitian 1870.eko abuztuaren 29an sortu zen matxinadaren errudun nagusitzat epaitu zuten. "La Azpeitiana" izeneko arma-fabrika baten egindako fusilak gorde zituela elizan (koruaren ganga eta zoruaren bitartean) eta soldadu karlistei banatu zietela salatu zioten. Lau urtetik gorako kartzelara kondenatu zuten. Migel Dorronsoro Gipuzkoako Diputatu Nagusiak ziurtagiri bat eman zuen 1875.eko apirilaren 16an non Jauregiren aldeko beste argudio batzuen artean zera esaten zuen: Carlos V. eta Antonio Lizarraga karlisten Komandantearen kapeilaua izan zela, Diputazioaren aginduz dirua biltzen ibili zela ospitaletan zauriturik zeudenei laguntza emateko, eta haurren hezkuntzarako Gipuzkoako batzordeburu izan zela. Eta azken kargu honekin lotuta dator Jauregik gure Aranarekin izan zuen harremana: Poyanetik idazten dio Jauregiri prest dagoela haurrentzat Euskal Gramatika idazteko eta Irazustaren *Dotrina,* dakarren euskara txarragatik, eskoletatik kentzeko eskatuz. Hau esaten dio 1875.eko abuztuaren 25ean idatzitako gutunean eta beste batzuetan gomendatzen dio Historia Sakratuaren testuliburu gisa Juan Antonio Ubillosen *Christau Doctriñ berri-ecarlea* (Tolosa, 1785) eta haurrei gizabidea irakasteko *Kristauaren Kortesiya,* bere ustez Cardaberazek idatzia. Donostian Euskal Katedra bat sortzeko ekintzetan Diputazioa zebilen garaian (1884) txosten bat bidali zuen Jose Ignacio Aranak: "De la primera sección o el euskera en las escuelas de instrucción primaria de Guipúzcoa" (5). Baina Agustin Jauregiren haria berriz harturik esan dezadan honako lan hau argitaratu zuela: *Albiste on bat urteoro berritzen dana... Barau Vigilia eta Bulda santuaren gañean* (1878) (6) Azkueren *Euskalzale* aldizkarian ere argitaratu zuen "Sasoiko fruta" lantxoa (7).

1870 urteko matxinadan nahasturik egon zen beste bat Jose Ignacio Aldalur Iriarte, azkoitiarra (1829-1890) eta Azpeitiko organista izan zen. Esanda dagoenez, 1870.eko epaiketan Iparraldera ihes eginda zegoen. Honek ere badu zerikusirik Jose Ignacio Aranarekin. Esan dezagun hasteko, Agustin Pascual Iturriagak (1778-1851) idatzi zuela orain ere kantatzen den San Ignacio-ren martxa edo ibilneurria. Honen gaztelaniazko itzulpena Jose Ignacio Aranak egin zuen. Baina Loiolako Inazioaren bizitzari eta pertsonaiari hainbat lan eskaini zion jesuita hau ez zen horrekin konformatu. *San Ignacio-ren marcha berria* idatzi zuen 1872an, "Jose Ignacio Aldalur apaiz jaunak soñuz ipiñia" eta Azpeitiko P. Martinezen moldiztegian kaleratua (8). Aldalur musikuaren bila joan zen berriz gure Jose Ignacio Arana 1886an beste *S. Inazioren marcha berriya* idatzi zuenean, hau ere Azpeitian P. Martinezek argitaratua. Zortzi zortziko txikik osotzen dute martxa hau, lehena

(5) ECHEGARAY, Bonifacio de: "Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco". In: *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa.* Donostia, Euskaltzale, 1935.

(6) Madrid, Propaganda Católica, 1878, 31 orr. 14 cm. Gero *Euskal Erria,* 1885, XII, 175-178, 212-216, 252-254, 266-273.

(7) *Euskalzale,* 1897, 107.

(8) Gero *Euskal Erria,* 1882, 102, ortografia aldatuta. Gaztelaniazko testua Ramon Garciarena da.

koruarentzat egina eta beste zazpiak ahots bakarrarentzat. Inprimakiaren azpian azaltzen da ohar hau: "D. J.I. Aldalur jaunac soñu eder berrian jarriya". Azkoitiar biak ondo konpontzen zirela politikan eta olerki/musikan dirudi. Dena den, 1886 urte berean eta zortziko handian, oraingoan, *Erregu-Kantak San Ignazio Loyolakoari* eskaini zizkion Jose Ignacio Aranak, doinurik gabe dirudienez (9). Bi urte lehenago beste *Aita San Inaziori Erreguzko kantachoa* argitaratu zuen (10).

Jose Ignacio Aranaren bibliografia labur bat eman dut aurreko lerroetan, gehiena ezezaguna, eta bere inguruan zebiltzan adiskide karlistena. Baina adibide urriak dira. Bibliografo honen lan ugaria eman behar dut hurrengo lerroetan, ezezaguna, eskuizkributik moldiztegira ez zuen eraman eta. Larramendik bere *Hiztegia*ren hitzaurrean eman zigunetik, Juan Mateo Zabalak gehitua (11) Julien Vinsonek 1891an eman zigun *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* liburura arte hainbat izan ziren euskal bibliografiaz aritu zirenak (12). Baina ez dut uste inork egin zuenik, garai hartan behintzat, Jose Ignacio Aranak egin zuen hainako lana. Vinsonena aparte utziz, Jon Bilbao eta gure Arana izan dira euskal bibliografo eta bibliozalerik handienak. Kontua da beste guztiek argitara eman zituztela aztertutako bibliografiak eta Jose Ignacio Aranak ez zuela berea argitaratu eta hor geratu zela, inork ezagutu gabe, artxiboan ezkutatuta. Orain dagokigu, argitaratzen ez bada ere, horren berri emateko parada. Aitor dezagun Aranak ez zuela jarraitu latinezko esaera honek adierazi nahi duena: "parva propia magna; magna aliena parva" apaltasuna izan baitzen, nahiz eta guretzat mesedegarri izan ez, jesuita honen izaerako birtutea.

Duvoisinek Aranari 1874-10-22an idatzitako gutunean esaten zion Abbadiek zeukala euskal liburutegirik onena, garai hartan Bonapartek baino hobea. Abbadieren liburutegiaz eta liburuzaletasunaz bazekien zerbait Jose Ignacio Aranak. Parisko Bibliothéque Nacionale-tik lortutako mikrofilmetan irakurri ditut Antoine d'Abbadieri idatzitako 50 gutun, 1869tik 1877 arte. Zarautztik idazten dio lehena 1869.eko urtarrilaren 7an eta azkena Poyanetik 1877.eko ekanaren 25ean. Bitartean Urduñatik, Baionatik eta Larbeytik idatzitakoak daude. Ez da posible hitzaldi honetan azaltzea Abbadieri ematen dizkion aipamen bibliografikoak eta igorri zizkion liburuen zerrendak. Ez eta geodesia eta arkeologiaz ematen dizkion berriak zeinetan agertzen den bibliografoa izatetik aparte beste zientzia batzuetan ere aditua zela Arana. Urduñako ikastetxean jarri zen laborategirako hainbat tresna eskatzen dizkio Abbadieri Parisera ida-

(9) *Euskal Erria*, 1886, XV, 209.

(10) *Euskal Erria*, 1884, XI, 68.

(11) ARANA MARTIJA, Jose Antonio: "Larramendi eta Bonaparteren mendeurrenetan, Juan Mateo Zabala gogoangarri". *Bilduma*, 1991, 5.zka. 137-147.

(12) Iturriza, Landazuri, Pierquin de Gembloux, Chaho, Abbadie, Brunet, Bonaparte, Rodriguez Ferrer, Michel, De la Fuente, Trueba, Manterola, Webster, Dodgson, Allendesalazar, Soraluce.

tzitako gutunetan. Zientzia gizon gisa agertzen zaigu Jose Ignacio Arana gutundegi honetan. Baina bibliografia denez nire gaia, adibide bitxi batzuk azaltzera natorkizue. Zarautzen zegoenean hil zen 1869-2-20an Jose Antonio Uriarte eta honen heriotzaren berri ematen dio. Aranak Bonaparte ez zuela ondo ezagutzen ikusten dugu gutun berean, Abbadieri esaten baitio: "Duela 12-15 egun Napoleon-Lucienen bisita izan zuen Uriartek". Urte pare bat geroago, Urduñatik 1871-2-18an idatzitako gutunean Duvoisin, Intxauspe eta "Prince Napoleon"en liburuen berri eskatzen dio Abbadieri. Arraro samarra de Louis-Lucien izena zeukala Bonapartek ez jakitea. *Vidas de algunos claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesús* liburua dela eta, ez dio esaten Arana bera dela egileetariko bat. Jon Bilbaok ere ez du egileen izenik aipatzen "por unos bienhechores" jartze baitu. Baina Zugatzagaren nekrologiatik dakigu Jose Ignacio Arana, Ramon Garcia eta A. Lizargarate izan zirela autoreak. Liburu honen atarian azaltzen da Modesto Gorosabelek argitaratu zuela Tolosan 1870ean. Baina ez zen urte horretan argitarapena bukatu. 1870-10-30eko gutunean esaten dio 500/600 orrialde izango dituela liburuak. Gero 1871-2-18koarekin batera igortzen dizkio lehen orrialde inprimatuak eta azkenik, 1871-4-8 datako gutunean jakinarazten dio igorri diola liburua. Datu hauek ematen ditut oso arraroa delako liburu hori.

Galindezek egindako Ruth liburuaren itzulpenaz (13) argibide bat eman behar dut Jose Ignacio Aranaren eskutik. Bizkaiko Urduñatik idazten dizkio gutunak Abbadieri 1870.eko urritik hasita. Handik hurbil dauka Laudio Bilborako bidean, eta Bonaparteren aginduz edo, eskatzen dio Abbadiek Aranari Laudioko euskaran itzultzea Ruth-en Liburua. Zarautzera opor sasoian joanda, esaten dio Aranak Abbadieri "Laudion dagoela euskaldun on bat Ruth-en liburua itzultzeko gai dena". Denok uste genuen Ignacio Galindez zela itzultzaile hau eta, egia esan, bera izan zen azkenean argitaratu gabe geratu zen liburu honen itzultzailea. Baina Aranak 1871.eko abuztuaren 22an aipatzen duena ez da Galindez, beste apez bat, Jose Larrea baizik. Honi itzulpena agindu zionetik urte bete baino gehiago iragan ondoren, 1872.eko azaroaren 30ean esaten dio Aranak Abbadieri Larreak ez duela astirik itzulpena egiteko eta beste apez bati agindu diola lan hau burutzea: Ignacio Galindez. Azaroan agindu eta Gabon aurretik bazebilen itzulpen lanetan. Itzulpen honen beste xehetasunak E. Knörrek ematen dizkigu.

Arraroa badirudi ere ez zuen Aranak Bonaparterekin harremanik izan 1876 arte. Ordurako bost aldiz egonda zegoen Printzea Euskal Herrian baina 1869a baino lehen egin zituenez bost bidaiak, ez zuen Arana gaztea ezagutu. Sei urte geroago esaten dio Aranak Larbey-tik Abbadieri (1875-1-17) jaso duela Bonaparteren helbidea eta Printzeari helarazteko bidaltzen dizkio atera berri zituen hiru liburu: *Vidas de los claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesús*

(13) KNÖRR, Endrike: "Otro texto de Llodio. El *Libro de Ruth* por Ignacio Galindez. 1872". In: *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae. Pars altera.* Vitoria, 1985, 1055-1062. Knörrek irakurri ezin izan zituen bi hitzak bat dira: "dernierment".

(1870), *Ama Virgiña guciz garbi Concepciocoaren oficio laburra* (1872) eta *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gastelaniaz* (1872). Gero ausartzen da Bonaparteri zuzenean idazten eta Baionatik zuzentzen dio lehen gutuna 1876.eko urriaren 3an. Bonaparte eta Aranaren artean gurutzatutako gutundegia Patxi Altunak eman zigun (14). Handik zortzi hilabetera bukatuko du Aranak Abbadierekin gutundegia eta hasiko da Bonaparterekin gutunetan. Egia esan gaia ere guztiz aldatzen da, zeren eta Abbadierekin, gehien bat, euskal bibliografiako lanak erabiltzen zituen (100 liburutik gora aipatzen dira eta Bonaparterekin izandako harreman idatzietan hizkuntza, euskara, da gai nagusia). Dena den, eta noiz behinka, agertzen dira liburuen aipamen bibliografikoak. Eta bereziki Bonapartek 1876-12-4an idazten dion gutunean, horrekin batera bidaltzen baitizkio 38 liburu Printzeak argitaratuak. Arraroa dena da, liburu horietatik 14 baizik ez dituela Aranak Bibliografian aipatzen.

Irakurri eta idatzi dituen liburuak, batari eta besteari ematen dizkion erreferentzia bibliografikoak, bidaltzen dituen liburuak, beraiengandik jasotzen dituenak ez dira euskal bibliografia osotzeko erabilten dituen iturri bakarrak. Dakigunez, Salamancan egon zen 1857an, hogei urte oraindik bete gabe zituelarik. Han ezagutuko zuen, behar bada, Gabriel de Henao jesuitak (1611-1704) argitaratu zuen *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*, bertan bi tomotan 1689-1691an kaleratutako liburua. Carrion eta Loiolako komentuetan egon zen gero eta badirudi orduan hasi zela euskal bibliografia biltzen. "Je ne suis pas encore prêtre" diotso Abbadieri 1869ko gutun batean eta Zugatzagak dioskunez (eta honetaz Patxi Altunak zerbait gehiago esango digu) 1874ean eman zuen meza berria. Beraz, Loiolan, Zarautzen, Urduñan eta Poyanen bildu zituen lehen fitxa bibliografikoak, apeztu baino lehen. Ene ustez, 1872 urtea da Jose Ignacio Aranaren bibliografiarekiko urterik aipagarriena. Ordurako bizpahiru liburu argitaratuak zituen, *Arte métrica bascongada* urte horretan datatzen du eta hainbat idazle irakurri dituela ikusten da. Eta datu hau azpimarratu nahi nuke urte horretan: 1872.eko azaroan Abbadieri zera diotso:

> "No es fácil una Bibliografía completa euskara según yo la considero, abrazando no sólo los escritos en bascuence sino todo lo relativo al país euskaro en cualquier lugar. Con todo, mucho servirán al efecto las noticias de las imprentas que ha habido y que hay en el país bascongado (como se ve en la Memoria de 1871 a 1872 con respecto a Bilbao) (15) principalmente en Pamplona, Vitoria, Tolosa, San Sebastián y Bayona, y aun tomando en cuenta las que hubo en Oñate, Azpeitia, Azcoitia, Vergara y otros pueblos; y para eso y más elevados fines sería utilísima una Academia Católico-Euskara que fuera un nuevo baluarte de la Religión verdadera, idioma, fueros y libertades patrias de la más antigua de las razas europeas."

(14) ALTUNA, Patxi: "Bonaparte eta Aita Aranak elkarri egin kartak". *Fontes Linguae Vasconum*, 1985, n.º 46, julio-diciembre, 305-341. orr.

(15) Jose Julio de la Fuentek argitaratutakoak, hain zuzen.

Hor dugu ba bibliografiarako beste iturria, hots, moldiztegiena, eta bibliografiaren gaien aipamena: erlijioa, hizkuntza, fueroak eta azpimarratu beharko genukeen Aranaren abertzaletasuna (16).

Gabriel de Henaoren liburua aipatu dut. Eusebio Lopezek egin zuen Tolosan bigarren argitarapena 1895-1896 urteetan eta Jose Ignacio Aranak egin zizkion edizio honi hainbat eranskin. Historiagrafiarako ematen dituen datuetatik aparte, eranskin hauek azpimarratuko nituzke bibliografia zehatza aipatzen dutenak:

> APENDICE IV. "Ilustraciones sobre la Historia de Guipúzcoa y sobre sus libertades y fueros". Noticia bibliográfica de los principales historiadores de Guipúzcoa.
>
> APENDICE V. "Ilustraciones al P. Henao en sus Preliminares de las Averiguaciones". Noticias bibliográficas sobre la Santa Casa de Loyola.
>
> APENDICE VI. "Sobre el monoteismo y religión verdadera de los Cántabros y su primitiva lengua". II Parte: Sobre la primitiva lengua española o ibérica de los Cántabros. Ilustración primera: Sobre las voces topográficas euskaras. Ilustración segunda: Reseña histórica de la literatura cántabra o bascongada.
>
> APENDICE VII. "Historia del Patronato de Loyola e Iglesia Parroquial y ermitas de Azpeitia".

Eranskin guztietan erreferentzia bibliografiko interesgarriak ematen baditu ere, VI. Eranskinean euskal literaturari buruzko atala da garrantzitsuena. 88-110 orrialdeetan biltzen dira ia 200 idazleen izenak. Endrike Knörrek igorri dit atal horretatik atera duen idazleen zerrenda eta eskertzen diot benetan. Baina askoz ere gehiago dira beste eranskinetan agertzen diren euskal bibliografiarako fitxak, ez euskal idazleenak bakarrik, euskal gaiak ukitzen dituztenenak baizik. Eta euskal idazleenak ere askoz ere gehiago dira orain aztertuko dugun Aranaren *Ensayo de una Bibliografía Bascongada* eskuizkribuan.

Azkenerako utzi dut lan honi dagokion azalpena. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan dagoen eskuizkribu originala da, 436 orrialde dituena, 21 × 13 zentimetrokoa. Gehiena Aranak idatzia da, baina badaude txertatuta, letra ezberdinetako orrialdeak, dirudienez laguntzaile batzuk Aranari bidaliak. Bibliografia honek 1.363 fitxa bibliografikoak ematen dizkigu, baina biltze lana dela ematen du, zeren eta lehen orrialdean gero erantsitako Sinopsis ez du jarraitzen. Azkuek 1896an argitaratutako *Proyecto de Ortografía* da azken fitxa. Beraz hil arte jarraitu zuen Aranak biltze lanean eta ez zuen astirik izan dena sinopsiaren arabera taiutzeko. Hau da Jose Ignacio Aranak asmatu zuen plana:

---

(16) Moldiztegien historiari buruz ikus: ARANA MARTIJA, Jose Antonio: "Euskal Herriko inprentaren historia". *Uztaro*, 1994, 12, 37-53.

BIBLIOGRAFIA BASCONGADA
Plan del Tratado

Sinopsis sinopseos (sic) de la Bibliografía Bascongada

I.ª Parte: Bibliografía bascongada antigua (o hasta mediados del siglo XV o invención de la imprenta).

Disertación I: Sobre la Paleología Euskara o basco-cántabro-aquitana en sí misma considerada.

Disertación II: Sobre la Paleología Euskara con relación a otros países y lenguas antiguas y modernas.

Disertación III: Sobre la Ortografía Euskara o bascongada antigua y moderna.

Parte II.ª: Bibliografía bascongada moderna (o desde la invención de la imprenta (1440 a 1452) hasta nuestros días).

Disertación preliminar sobre esta segunda parte y sus Apéndices.

Sección I: Orden cronológico de los escritores y monumentos relativos al Euskara, la Euskaria y los Euskaros o Basco-Cántabro-Aquitanos.

Sección II: Orden alfabético-biográfico-crítico de escritores relativos al Bascuence, la Euskaria y los Basco-Cántabro-Aquitanos.

Sección III: Apéndices.

Baina, egitasmo hau betetzeko beste fitxa bildu arren, ezin izan zuen aurretiaz ikusitakoa bete. Kontuan izan dezagun 58 urterekin hil zela, urte gehiago bizitzeko eta fitxak taiutzeko esperantzan. Beraz gordetzen dugun eskuizkribuan honako hamabi atal utzi zizkigun:

1. Orden alfabético cognominal de algunos autores clásicos del Bascuence en sus tres dialectos principales: bizcaino u occidental (16), guipuzcoano y navarro o central (24) y labort-suletino u oriental (20).

2. Algunas de las fuentes o repertorios para esta Bibliografía Bascongada.

3. Bibliografía Bascongada I con índices alfabético y cronológico. 377 fitxa.

4. Bibliografía Bascongada II con índices alfabético y cronológico. 222 fitxa.

5. Catálogo de libros para aprender el Euskara. 40 fitxa.

6. Cristau-icasbide eta jayera edo deboziyoraco liburutegi berezia euskerazkua. Biblioteca selecta bascongada de libros de instrucción y devoción cristianas. Ez dirudi Aranak idatzitakoa denik. Azkena 1883koa. 48 fitxa.

7. Euskarazco liburu on batzuen izenak, edozein cristau gogo-onecoren pro(be)churaco, zeñac iracurgai eta gomutagei obeenetacoac baidira. 214 fitxa.

8. Comunicación del Sr. D. Roque de Eriz, segundo Diputado General de Guipúzcoa, al R.P. Ignacio de Arana sobre la entrega del Santuario y Colegio de Loyola a la Compañía de Jesús en 1856.

9. Bibliografía Euskara III con índice alfabético y cronológico. 314 fitxa.

10. Bibliografía Bascongada IV. 96 fitxa.

11. Bibliografía Euskara V: del V.P. Agustin Cardaveraz. 12 fitxa.

12. Bibliografía Euskara VI. 40 fitxa.

Ikusten denez, aldian-aldian egindako bibliografia da eta ez Jose Ignacio Aranak bakarrik burutua, laguntzaile batzuen letra desberdinak ere agertzen baitira, ez asko, egia esan.

Hitzaldi honetarako denbora mugatua izan dudanez, eta behar bada larregi zirikatuko nuen zuen pazientzia, ezin izan ditut eman nahi nituen beste xehetasun. Nahi duenak jarrai dezala ikerlana, unibertsitateko tesia betetzeko material haina daude Arana bibliografoaren inguruan eta. Hala biz.

JOSE INAZIO ARANA JESUITAREN BIZITZA (1838-1896) - I

Azkoitia, 1996-XII-20

Patxi Altuna

1. AURRETIKOAK

Berak utzi digu luzaki eta zehazki idatzia bere bizitza ia 1.300 orrialdeko izkribu gaurdaino inoiz argitaratu gabe eta EGUNARIA deritzan batean. Esan gabe doa artikulu honetan hori izango dela ene iturburu ia bakarra. Bai halaber, eskuizkribuaren zati txiki batez bakarrik baliatuko naizela artikulu labur hau egiteko eta ondoren etorriko direla, Jainkoa lagun, beste artikulu batzuk.

Bere bizitzaren berri emateaz gain jakinarazten dizkigu bere bizitoki anitzetako gertari politikoen oihartzunak, idazten ari den liburuen froga-zuzenketak, beste euskaltzale eta euskalariekin dituen harremanak, eta abar. Ez da beraz ikerlanik egin behar Aranaren bizitza kontatzeko, hautalana egin behar da. Ez baita dena garia bere izkribuan, lasto ugari ere badago eta ordu askotako lana da bata eta bestea bereiztea.

Nik artikulu honetan bere bizitzako lehen 29 urteen, berak EGUNARIAren Lehen Partea deitzen duenaren berri emango dut. Helburu batekin, batez ere: Jose Antoniok esan duen bezala, joan zen mendean euskalaririk onenetakoa eta ezagunenetakoa izan zen Aita Jose Inazio Arana Irazusta Azkoitiarraren bizitza eta obra ezagutaraztekoarekin. Bonapartek, d'Abbadiek, Duvoisinek, Intxauspek, eta Lardizabalek, Agirrek, Urruzunok, Arzakek, Campionek, Soroak, Arresek eta abarrek, hala nola, Manterolak, Asteasuko Agirrek eta Sabino Aranak behin eta birritan kontsultatu zuten gizonaren oroitzapena ez dadin gure artean itzal eta suntsi.

Aita Villasantek honela deskribatzen du Aita Arana bere Euskal Literaturaren Historian, 284. or.: "fue sin duda de los más profundos conocedores de la literatura y bibliografía vascas. Cultivó también asiduamente la poesía". Honela ere bai: "Uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1880..." (ib.).

Lehenago, Aita Arana hil eta berehala, Aita Felipe Zugazagak, Aranarekin Loiolan bizi izanak, Hilberri bat argitaratu zuen R.M. Azkuek eskatuta, honek sortu berria zuen *Euskalzale* aldizkarirako. Aita Zugazagaren idazlana EGU-

NARIAren lehen orrialdeetatik hartua da eta horregatik du enearekin antz pixka bat lehen lerroetan. Nik hark baino luzexeagoa idatzi dut, baina bien iturburua bera da, luze-laburrak gorabehera.

Irakurleak horri antzeman diezaion, jakin beza izkribuak bi zati handi dituela. Lehenak, gazteleraz idatziak, bere aldetik hiru atal ditu. Lehen atala, 48 orrialdekoa, aitonen eta gurasoen eta bere jaiotzaren berri ematetik hasi eta 1867. urtera luzatzen da. Hori da ene gaurko artikuluaren gaia. Bigarren atala urte horretatik hasi eta 1872garrenerainokoa da eta 195 orrialde hartzen ditu. Eta hirugarren atala 1873an hasten da eta 1884an bukatzen eta 474 orrialde besarkatzen. Beraz, 717 orrialde dira danera.

Hori gazteleraz idatziriko lehen zatia, nik euskaraz gatzatua, zeren bigarren zatia, 1884an hasten dena, osorik euskaraz idatzia baitago eta bera da izkribuaren 4. zatia bere osoan: 1884-1892. Alegia, ez du barne-zatirik, baizik urte bakoitzaren bukaerak eta berriaren hasierak seinalatzen dituzte mugak, azkena 1891garren abenduaren azken eguna. Eta hor amaitzen da EGUNARIA, gezurra badirudi ere, zeren badakigu 1896an hil zela. Aspertu egin ote?

Jose Antoniok bere lan ederrean esan digu Azkue liburutegian daukaten Aranaren *Ensayo de una Bibliografía Bascongada*-ko 1363 fitxetatik azkena Azkuek 1896an argitaratutako *Proyecto de Ortografía*-rena dela. Hortik ondorio hau ateratzen du: badakigu Jose Inazio Arana hil arte jarraitu zela biltze lanean.

Areago dakigu, hil zen arte aritu zela EGUNARIA idazten ere. Hona zergatik. EGUNARIA hasi aurreko orrialde zenbaki erromatarrez markatuetatik XXV.ean hitz hauek irakurtzen ditugu:

"1892. De exercitiis an. 1892, vide EGUNARIA, el 7 de Setiembre de 1892. Propositorum compendium.

1893. De exercitiis et propositis vide EGUNARIA, 24 de Set. 1893.

1894. De exercitiis et propositis vide EGUNARIA, 7 de Set. de 1894. Asmo doneak.

1895. De exercitiis et propositis, vide EGUNARIA 7 de Dic. de 1895.

1896. De exercitiis et propositis 1896 vide EGUNARIA 22 Septembris."

Latin erraza da hori. Ikusten denez, bere bizitzako azken bost urteetako Gogojardunen berri jakiteko, EGUNARIAko hor ipintzen diren orrialdeetara igortzen gaitu. Beraz idatzi zuen azken bost urteetako EGUNARIA ere. Non dago, ordea? Badakigu 1891ko azkenaldean Lagundiko Probintzialak eta Erromako Agintariek zigortu zutela bidaliz bizitzera Burgosko Oñara, iada orduko Leongo Teologia Fakultatearen ordezko bihurtura. Hona orain gure hipotesia: Durangotik Oñara 1891garren urteko azkenaldean zokoratzean, konfiantzazko lagunen bati utzi ote zion Durangon orduarterainoko EGUNARIA, Oñan zer

gerta ere, eta horri eskerrak salbatu eta guganaino heldu ote da? eta aldiz Oñan azken bost urteetan idatzi zuena, hil ondoren, betiko galdu?

2. HAUR ONGI HAZIA (1838-1854)

Azkoitian sortu zen 1838ko maiatzaren 26an, Elizak San Felipe Neriren festa ospatzen duen egunean, berak bere EGUNARIAn urteoro gogorazi ohi digun bezala. Aiton-amonen berri emanez hasten da. Aitona Jose Franzisko de Arana zen, jatorriz Larraulgoa; "Azkoitian berriz Baroi-etxekua edo Baroikua, gaurdaino dioten bezela", diosku bilobak. (Irakurleen ezagutzarako diot neure aldetik "Baroikua" bezala "Dukekoa" izeneko etxea ere bazela eta badela Azkoitian, "Aingeru Guardako" ermita baino goraxeago, EGUNARIAn behin baino gehiagotan aipatzen dena). Haren lehen emazteari Gabriela Larrañaga zeritzan eta bi seme izan zituzten, Jose Manuel eta Franzisko. Gabriela gazterik hil, ordea, eta aitona berriz ezkondu zen Maria Antonia Larramendirekin, zeinek beste seme bat, Jose Inazio, eman baitzion, iloba jesuitari izena emango ziona.

Hiru semeetatik bi, Jose Manuel eta Jose Inazio, etxean omen zeuzkan berekin; "Franzisko berriz Valladolidko Kanzilleri Errealaren aldean kargudun". Hiruretan zaharrena, Jose Manuel, gure Jose Inazio jesuitaren aita, Albisturen ezkondu zen 1835eko urtarrilaren azken egunean, Artola zeritzan Amezketako auzo edo baserri bateko alaba Josefa Dolores de Irazustarekin.

"Bitartean", dio izkribuak, "D. Carlos Vgarrenaren aldeko gerra aurrera zijoan Zumalacarregi Euskalerrian buru otsandiko zala, eta Jose Manuel Aranak ere" —aitak, alegia— "armetara joan bear izan zuen...".

Zortzi seme-alaba izan zituzten, zazpi seme eta alaba bakarra, gazteena. Gure Jose Inazio danetan bigarrena zen eta, berrogeita hamazortzi urte bakarrik bizi izan bazen ere, senide guzietan gehiena bera bizi izan zen. Beste anaia bat ere, Jose Antonio, hirugarrena, jesuita egin zen eta gazterik Manilara destinatu zutelarik, han hil 26 urte zituela. Jose Joakin, laugarrena, herri-apaiz izan nahi zuela eta Arantzazun, Iruñean eta Salamankan aritu zen ikasten, Jose Inazio bezala, baina 1859ko udan Azkoitian hil zen uztailaren 3an. Umetan hil ziren Jose Luis, Jose Remigio, Jose Miguel eta Maria Luisa, arreba txikia. Jose Inazioz gain urte mordoxka, 44, bizi izan zen bakarra Antonio Maria zen, zortzi senideetan azkenaurrekoa eta urte askotan zehar Jose Inaziori munduan gelditu zitzaion senide bakarra. Ez da harritzeko suharki maite eta saminki deitoratu izatea haren heriotza, Durangon biharamunean jakin zuenean. Diodana sinesteko, aski bedi jakitea Aita Probintzialak hiru egunerako etxera joaten utzi ziola eta ondoko egunetan lagunen dolumin-karta piloa eskuratu zitzaiola; hiru bakarrik aipatzeko, Arzac, d'Abbadie eta Sabino Aranarena.

Umetan Trokotxoko eta Aranburuko etxekoandreak izan zituen inude Jose Inaziok. Lauzpabost urte zituela hartu zuen Sendotzako sakramentua eta ez zituen edozein izan aita-amabitxiak: Konde Valleko senar-emazteak, alajaina, Murua jauna eta Gaitan de Ayala anderea. Ondoren gurasoek Jose Inazio, urte gutxitan etxean lau seme-alaba metatu zitzaizkielako edo, Amezketara bidali zuten haztera, hangoa baitzuen ama.

Bitartean aitaren anaia Jose Inazio Azpeitiko Paula de Unanuerekin ezkondu zen. Hiru alaba izan zituzten eta hirurak munduratu ahala hil, neska txiki zirela. Izeba Paula alargun hau Jose Inazio jesuitak oso kuttuna zuen eta elkarri egingo dizkiote etengabe eskutitzak, EGUNARIAren kontaerak dirauen bitartean. Hiru alabatxoak ez ezik, senarra ere laster galdu zuen, 1856an, kolera denboran.

Lehen letrak herriko maistra Gabriela San Jose elizondoan bizi zenarekin ikasi zituen eta sei urteko zela maisu jaun Barrutia zeritzanaren eskolara pasa. Eskola zaharretik, Lagundiak han zuenetik, Elizatariko berrira aldatu zen laster, baina kontu ateratze eta esku letrak —hala deitzen ditu berak— hobeki ikasteko, D. Fr. Jose, Marsalgoan bizi zen fraidearekin eskolak hartzen hasi zen. Oroitzen da nola, oso mutiko zela, joan zen aitarekin Bilbora behin edo bitan; baita ere nola izan ziren urte haietako batean, 1849an, Azkoitian Probintziako Junta edo Batzarrak.

Osasun erkin samarragatik —ikusiko dugu bizi guzian izan zuela aski makala— edo etxeko semeen zama pixka bat arintzeagatik, Ezkiogara jo zuten gurasoek, ahaidea zuten eta hango maisu zen Jose Maria de Azpiazurengana. Gainera amaren izeba zahar batzuek ere han bizi ziren. Zortzi edo bederatzi urte zituen orduan mutikoak eta hamalau hilabete egin zituen Ezkiogan. Ormaiztegira inoiz edo behin Meza entzutera jaixten omen zen, "nun Zumalakarregi apaiz jaunaren meza aitzen zuen". Han zegoela gertatu omen zen Errapitako karlisten altxaera eta inguru hartan ere zerbait mugitu omen zen bat edo beste.

1849garren urteko udan Azkoitira eraman zuten gurasoek berriro eta ordu batzuetan "erakuste apartekoak hartu-azi ziozkaten" semeari Barrutia maisuarekin; baita dibujo-eskola batzuek ere Eizagirre jaunarekin. Hainbat seme-alabaren amaren osasuna akitua eta unatua zegoen nonbait eta 1850garren urtean ustegabean ama hil zitzaien, aita Bilbon zen egunetan preziski.

Asko luzatu gabe, 1850ean, aita berriz ezkondu zen Asteasuko emakume Josefa Antonia Udakiolarekin eta denbora gutxian bi alaba izan, Nikolasa eta Justa, eta, handiagoa dena, urte gutxiren buruan, mutiko batez erditzean, hil zitzaion bigarren emaztea ere. Juana Acha, Rafaeltxo, eta Patxi "Tole" Usabiaga ere maiz agertzen diren ahaideak dira.

Albistur izan zuen hurrengo ikastokia gure Jose Inaziok. Han ba omen zen apaiz koadjutore D. Esteban Zelayeta, gramatika irakasten aritzen zena. Jose

Inazio joan orduko, beste bat, Billabonako Pedro Manuel Echabeguren, gero jesuita egin eta Puerto Ricon hil omen zena, ari omen zen harekin gramatika ikasten. Elkarrekin urtebete bizi eta jardun eta, D. Estebanekin gramatikaz gainera, D. Felix de Eleizgaray herriko organistarekin eta haren seme D. Toribio, gero Gasteizko Katedralean organista izango zenarekin, ikasi omen zuten musika ere. Diodan bidenabar Eleizgaraytar organistak orduan eta gero ia gaurdaino Azpeitiarrak izan direla.

Hurrengo pausua, hurrengo ikastokia —inongo maisuen ikasgaiak ikasten baitzituen nonbait denbora gutxian— Aranzazu izan zen, eta han Fray Domingo de Albeniz irakasleak, Azkoitiko semeak, irakatsi zizkion Giza-zientzia edo Humanitate direlakoak eta latina. Hamasei laguneko taldea aritu omen zen urte hartan Albeniz irakaslearekin gai horiek ikasten eta hango bakean eta bakardadean aurkitu omen zuen la "cuna dichosa de su vocación religiosa". Tiple on-ona zen beste semea ere hara igorri omen zuen aitak gramatika eta musika ikastera eta ez omen zien gutxi gozarazi hara joaten zirenei "con su magnífica voz de tiple".

Arantzazutik Iruñera: hala erabaki omen zuten gurasoek. Baina ohar gaitezen puntu batean: Baroico diru-egoera ez zen, itxura guzien arabera, nolanahikoa. Jose Inazio Iruñera bidaltzeko, Jose Antonio tipleak senideetan hirugarrenak Aranzazun aurrera segitzeko eta laugarrena Jose Joakin ere urte hartan Humanitateak ikasten hasteko diru boltsa handi samarra behar zen. Kontua da gure Jose Inaziok eta bere lagun Etxabegurenek jesuita izateko erabakia hartua zutela eta Loiolan lekua eskatua. Hango Buruek, Aita Moreyk eta A. Olaskoagak, bata hartu zuten, baina Jose Inaziori Iruñean urtebete ikasteko eta orduan hartuko zutela esan. Hamabost urte bakarrik zituen.

Aranak berak non edo non "Batzar Hazitegi" deitzen duen Iruñeko Seminario Konziliarrean bi gairen matrikula egin zuen 1853-54 ikasturtean: 3. mailako latinarena eta gerkeraren hastapenena. Laster egin zituen lagun bizi zen etxe bereko kideak: bata inprimaria Nikasio de Goienetxe eta bestea Juan Bautista Olaetxea, gero Ikastegietako erretore izango zena. Eguberrietan beste lagun nor zen ez dioen batekin etxerantz abiatu ziren egun seinalatu haiek gurasoekin igarotzeko, eta hara non egiten duten topo Guardia Zibilekin Lekunberrin. Hitz bi egin eta aurrera joaten utzi zieten eta iluntzerako Tolosan ziren lo egiteko eta gure Jose Inazio Azkoitian biharamunerako.

Egun batzuk han igaro eta Iruñera berriz tipi-tapa 1854. urtean ia sartua. Ez zitzaion berehalakoan iritsi hain irrikatzen zuen hurrengo uda. Loiola zuen bere ametsa. Ez du azterketa konturik aipatu ere egiten. Etxera itzultzeko garaia heldu zitzaienean, trabak aurkitu zituztela, hori bai. Esparteroren altxaera gertatu berria eta hiritik ateratzen ez uzten, San Nikolas atea itxiagatik. Halako batean gauzak baretu zirenean eta San Nikolas atea ireki, hor dihoaz bi gazte, kilometro batzuek bereizten dituzten bi herrixketan, Loiolan eta Errexilen, gero urte asko biziko ziren eta elkarren lagun min eta elkarren laguntzaile izango

ziren apaiz Juan Bautista Pagadizabal —gero Errexilgo Erretore izana— eta gure Jose Inazio. Azpirozko aldapan Donostiatik Iruñera zihoan tropa-andana batekin egin zuten topo. Bidaniara iritsi zirenean, han laguna utzi eta jarraitu zen azkoitiarra bere herrirantz.

3. HERRITIK JAURTIKIA (1854-1856)

Lehen lana Loiolako agintariak zirikatzea izan zen. Ez zeukan ahaztua zer agindu zioten. Baina hitza jateko asmorik ez izanda ere, ohartzen zen Jose Inazio urtebetean jesuitentzat —eta beretzat— gauzak asko okertu zirela, agintariek zalantzak izan zitzaketela eta bere Loiolan sartzea arrisku handian zegoela. Egunetik egunera handitzen eta zabalagotzen zihoazen Gobernuak jesuitak Espainiatik jaurtikiko zituelako marmarrak. Hori gertatzen bazen, kito Arana jesuita izateko hartzea, ordukoz bederen!

Baina ez; marmarrak marmar, irailaren 11an sartzen utzi zioten eta jesuita izaten hasten eta hamabi egunen buruan sotana jantziarazi, baina ez beste orduarteko nobizioek soinean zeramatena bezalakoa, baizik jesuita frantsesek jantzi ohi zutena, beldurrez hara abiatu behar izan zezaten egun gutxiren buruan. Halaz eta guztiz ere, ezer gertatzen ez balitz bezala, hilabeteko gogojardunak egiten hasi ziren, jesuita berriek betidanik egin behar izaten dituztenak. Ez zituzten oraindik hamabost egunetakoak eginak, bertan behera utzi eta erbestera abiatzeko pardelak egiten hasi behar izan zutenean. Azaroaren 27an abiatu zen Jose Inazio Loiolatik beste lagun taldetxo batekin. Irunen geldialditxo bat egin zuten Lardizabaldarrek hala nahita; hauek "en un mirador junto al camino real, obsequiándolos" hartu omen zituzten. Baionatik gauerdian atera eta goizaldera iritsi omen ziren Akizera, egun gutxiren buruan Hagetmau-ra aldatzeko.

Etxe berrian nola edo hala kokatu zirenean, gogojardun Loiolan erdi eginei martxoaren 6an ekin zieten berriro nobizio sartu berriek eta dohatsuki amaitu. Udaren azken aldean Nobiziaduko lehen urtea burutu zuen bigarrengo zeregin berriekin hasteko; alegia, urtebetean ikusi gabeko ikasgaiak eta liburuak berriro hartu eta Humanitateak eta gerkera ahantzi samarrak berriztatu, Erretorikari eta Poetikari ekin ahal izateko. Bi urte ondoko boto erlijiosoak 1856ko irailaren 14an egin zituen eta gero ere Erretorika eta Poetika ikasten jarraitu, harik eta hurrengo udan, 1857koan, bien azterketak egin zituen arte. Berak ez du horrelako konturik esan ohi, baina sines dezakegu atsegin handiz aritu zela gai haiek ikasten, gero Euskal Poetika liburu bat idatziko zuena. Horrenbestez amaitua zuen Lagundiko Juniorado deritzan lehen ikasketa aldia.

Bigarrenari ekin baino lehen, Hagetmau utzi eta Filosofia hiru urtez ikastera Salamankara joan behar zutenek, hara abiatu baino lehen, Akademia Poliglota delako saio handi-eder bat eskaini nahi izan zieten oraindik han gelditzen ziren "junior" gazteagoei agur egiteko, eta bisita egitera etorri zitzaien

Aita Probintzial Olaskoagari ongi etorria emateko. Han entzun ziren bospasei hizkuntzetan olerki eta hitzaldiak. Gure Jose Inaziok ere parte hartu zuen eta, Poetika ikastean aldeko izan zituen Musei (Oihenartek bezala) azken agurra emanez eta Salamankan zain zegokion Filosofiaren ohoreak kantatuz, *Poema* bat egin zuen, berak dioskunez, guk dakigun bere biziko lehena, gero ondoko urteetan egingo zituen ehunka neurtitzen aitzindaria.

4. TORMES ONDORA (1857)

Garai hartan Lagundiak ez zituen bere probintziak orain bezala zatituak. CASTILLA probintzia zerizten Galiziatik hasi eta Nafarroraño koguziei, Leon, Zamora, Salamanca, Palencia, Burgos eta Errioxa barne. Junioradoa guziek Loiolan bezala Filosofia guziek Salamancan egiten zuten. Batera bizi ziren, beraz, gailegoa eta nafarra, Zamorakoa eta Santanderkoa.

1857ko uda aurrera zihoan eta zeuden tokitik Salamankaraño joateko zortzi egun edo behar zituzten. Horiek horrela zirela, irailaren lean edo 2an, ez zaio ongi gogoratzen, abian jarri ziren kotxeetan eta Irundik 4ean pasa ("notaron al punto la diferencia de trato, de modales y de costumbres entre España y Francia") eta Gasteiz, Miranda, Burgos ("a las 7 de la tarde del domingo 5"), Dueñas, Palencia, Torquemada ("do una jícara de chocolate costó 4 reales"), Valladolid, Tordesillas eta Toro zeharkatuz, Zamorara ostegun 9aren goizeko 5etan iritxi ziren. Ordubeteko atsedenaren ondoren 6,30etan kotxeetara igo berriz eta "andando por malos caminos, prados y bosques con gran traqueteo" hilaren 9aren arratsaldeko 3etan heldu ziren azkenean Salamanka dontsura.

Bizimodu berria hasi zuen han Jose Inaziok, bere bete-betekoa, igande eta gainerako jai egunetan apaiz ziren Aitekin kartzelara eta gaixotegietara eta batez ere haurrei Kristau Dotrina irakastera ateratzen baitziren (Jose Inaziok gero biziko den toki guzietan gogoz eta suharki egingo dituen lanak). Eguberriak etxeko giro gozoan igaro eta udaberrian jesuita teologo amerikar bat han apaiztu zelarik, hari zorionak emanez *Octava Real* bat egin omen zion Jose Inaziok.

Ez zion ezerk susmarazten osasunak batbatean karrak egingo zionik. Filosofiako lehen ikasturtea eta ondoko azterketak ustez ongi eginda gero "tuvo J(ose) I(gnacio) A(rana) en los días inmediatos un ataque fuerte y repentino de sangre, que junto con los grandes calores de aquellos días degeneró en ataque cerebral que, gracias a Dios, con prestos y eficaces remedios de sangrías, nieve, etc. se pudo atajar, aunque en pocos días quedó el enfermo casi esqueleto por la mucha sangre extraída; pero recuperado casi a los 15 o 20 días con los continuos cuidados de los Superiores, en especial de los PP. Gomez y Beltrán y el médico Marcelino Rodríguez y con algunos baños de la misma ciudad de Salamanca, se hallaba en buena convalescencia al fin de Junio y principios de Julio de 1858".

5. LOIOLAN ERI (1858)

Hori ikusirik Nagusiek bertantxe Loiolara igorri zuten Jose Inazio "a restablecerse mejor con los aires naturales y baños de mar". Uztailaren 21ean abiatu ziren y "llegó algo cansado de tanto traqueteo de coche y bastante flaco a Loyola el 29". Bi hilabete eta erdi bakarrik bizia zen erbestera baino lehen Loiolako etxe handian. Ez zitzaion, halere, berria irudituko, baina jendez urritua bai, batez ere jesuita gaztez, han ez baitzen gehiago nobiziorik ez juniorrik.

San Inazio egunean ez zuen Elizako elizkizun handia ikusi gabe gelditu nahi izan, nahiz ez zen beheko jende artean eseri, baizik goiko balkoe-tribunetako batean. Ia damutu zitzaion joana: ordu eta hiru laurdeneco sermoia egin baitzuen apaiz gazte zela jesuita sartutako nobizio argi-zoli Nepomuzeno Lobok gero Probintzial izango zenak.

Sorterriko aireei eta inguruko paseoei eskerrak hobekuntza nabaritzen eta pisua handitzen joan zen egunetik egunera, baina "siguió algunos días J.I.A. con la cabeza delicada". Hala izan behar! Pixkabana bere oldezko lantxoak egiten hasi zen tarteetan, haatik, inguruko moja-konbenturen batetik neurtitzak eskatzen zizkiotenean, adibidez. Azkoitiko Santa Klara bere jaiotetxe ondoko Konbentuko Abadesak eskatu zion egin zitzan, otoi, Asisko Franziskoren zaurien gainean, eta bai egin ere.

Zer esanik ez, eguraldi ederra egiten zuen arratsaldeetan etxekoak eta gainerako lagunak ere bisitatzen zituela, emeki-emeki ibiliaz eta beti Ordenako Anai lagun bat aldamenean zuela, LAGUNDIKO Arauek agintzen zuten bezala. Orduan ikasi zuen bere anaia Jose Antonio eta Jose Joakin aurreko urteetan Carrionen ikasten arituak zirela eta lehenak jesuita izateko gogoa zuela eta bigarrenak herri-apaiz izatekoa, eta uda hartantxe joatekoak zirela bata Hagetmau-ra nobizio izatera eta bestea Iruñera, non izan baitzen D. Vicente Manterola jaunaren Erretorika ikasle. Albiste horiek orduan lehen aldiz ikastea eta bere etxeko berri hori baino gehiago ez izatea ez da harritzeko, seguru baita erbestera joan zenetik ez zuela etxeko eskutitzik hartu ez eta berak etxera idatzi.

Etxera joan zen arratsalde horietako bateko pasadizu polit bat kontatzen digu. "En el corredor de casa que da al río tenían los dos hermanos en la pared o poste dos señales de su altura; en la primera tenía José Antonio escrito en la raya «cum Pampelone veni» (Iruñetik etortzean, alegia) y llegaba hasta la frente de José Ignacio con fecha 10 de Julio de 1857, esto es, la altura de 163 cms., y en la segunda «cuando fui a Pamplona», señal de José Joaquín, fecha 25 Sept. de 1858 y llegaba a la altura de José Ignacio menos 3,50 dedos, o sea, 164 cms., de modo que José Ant. tenía de alto el 20 de Julio de 1857 163 cms. y José Joaquín el 25 de Sept. de 1858 164 cms., teniendo ese mismo año José Ign. (1858) la altura de 169 ó 170 cms.".

Ezin esan taxu oneko gaztea ez zela. Hor daukagu ezin hobeki pintatua gure Jose Inazioren izateko modua: ezer itzurtzen ez zitzaion pertsona, dena ikusten zuena eta kontatzeko orduan xehetasun zalea. Udan oporretan itsasbazterrera hurbiltzea aspaldiko ohitura da hemengo jesuiten artean (Bakio eta Getaria 50 azken urte hauetako lekukoak) eta Loiolakoek garai hartan Zumaian alokatu ohi zuten etxe bat hartarako, non ez zen bat edo beste arrazoi bereziak gatik eta baimen bereziarekin beste lekuren batera joaten, Betelura adibidez, Arana bera bezala uda batean, ikusiko dugunez. Taldetxoka joan ohi ziren Loiolatik Zumaiara eta Jose Inaziori abuztuaren 10ean joateko esan zioten beste lauzpabost lagunekin. Hamabost egun oso eman zituen han eta "con aquellos baños, alimentos sanos, descanso y paseos de 11 a 26 de Agosto se puso muy fuerte J.I.A. y como si no hubiera estado enfermo".

Egun horietako batean Getariko Bikario jaun D. Eusebio Echanizek, beste apaiz D. Miguel Oyarzun, azpeitiarrak, gero jesuita sartuko zenak eta Getariko alkate Larrumbide jaunak Askizatik jira bat egin zuten eta San Antongo gaztelua ikustera eraman alkateak. Elkanoren oroitarriak dituen latinezko hitzek bertso hau iradoki zioten Aranari:

Fede biziarekin
Biotza alaiturik
Eta jakinduriaz
Burua orniturik,
    Getarian jaun andi
Sebasti Elkanok
Mundu guzia aurrena
Ibilli du itsasoz.

Ezagutzen dugun Aranaren lehenbiziko bertsoa da. Uste baino lehen itzuri zitzaizkion opor egun haiek eta 26an berriz Loiolara itzuli zen. Irailaren lehen egunean hasi zituzten han humanista eta erretorikoek bere ikasketak, Aranak urtebete lehenago Hagetmau-n burutuak zituenak. Bere gisa aritu zen Salamankan etendako Filosofiako bigarren ikasturteko gaiak irakurtzen ("empieza sus estudios privados", dio berak), baina baditu bestelako denbora-pasak ere; esate baterako, euskarazko eskola partikularrak ematen dizkio Aita Gobernari, zenbait bisitariri Etxe Santua deritzaguna ere erakusten die, hala nola Gaztelu, Goikoetxea jaunei eta Oyarzungo beste bati, baieta Manterola senar-emazteei. Hilaren 14an Puig nobizioak lehen botoak egiten zituela eta OCTAVA REAL bat egin zion eta, egun gutxiren buruan, irailaren 27an, Napoleon enperadorea eta bere emazte Eugenia izan zirenean Loiolan bisitan, Etxe Santua eta gainerakoa astiro ikusi eta aldegiterakoan "dejó una limosna la Emperatriz".

6. SALAMANKAN BERRIRO (1858-1860)

Urriaren 4an, astelenean, gutxiena uste zuen eta biziki poztu zuen albistea eman zion A. Blas Olano erretoreak: osoro sendatua ikusten zutela medikuek

eta itzul zitekeela Salamankara bere ikasketak jarraitzera. Biharamunean abiatu ziren hura eta Madrida zihoan Anai Zabalo. "Para el viaje del H. Arana y Zabalo, éste a Madrid, tuvieron 1.500 reales". Bidaiaren xehetasun guziak kontatzen ditu. Hona batzuk: "7, miércoles, tarde. Salida de Vitoria para Valladolid por Burgos a las 7; dos asientos de diligencia cuestan 440 reales y se pagaron". "Asiento de Arana de Valladolid a Salamanca costó 130 reales en el interior", eta abar. Hilaren 10ean heldu zen Salamankara.

Beharrik ez zuen ikasturterik galdu; esan nahi baita, 1858-59 ikasturtean Filosofiako 2. maila ikasi zuen eta 1859-60an 3., zegokion bezala. Hil horretako egun batean, ez dio zeinetan, Manterola jaunak bere Doktor tesia irakurri eta defendatu zuen "en el salón llamado el General", eta han izan ziren ikusten eta entzuten Arana eta bere ikaskide batzuk: "hizo un discurso latino y argumentación con brillo; había estudiado antes en Toledo y era natural de San Sebastián".

Ikasturtean barrena ez ziren eskas izaten bertsoak eta olerkiak egiteko paradak, eta ugarienak eta hoberenak Eguberrietan, arratseko 7ak aldean etxeko antzerki saloian etxeko lagun guztiek, apaiz zirenek eta ez zirenek, elkarrekin jostatzeko eta olgatzeko bizpahiru ordu pasatzen zituztenean. Eguberri haietan Poesiazko Akademia batean Jose Inaziok latinezko ELEGIA bat eskaini eta irakurri zion Aita Vinader-i Guzman el Bueno-ren gainean. Aurrerago, Loiolako Basilikan behin ordu eta hiru laurdeneko sermoia entzun zion Lobo Nepomuceno apaizari, botoak egin zituela eta, Aranak Hamalauko bat egin zion.

Orain arte ez digu esan etxeko Akademia eta gainerakoetan bertso edo olerkirik inoiz euskaraz egin zuenik, baina beste honetan bai: Salamankako Apezpiku berri Sr. Justo Rodrigo, gero Burgosko Artzapezpiku ere izanari, Poesiazko Akademia txiki bat eskaini omen zioten eta Aranak gazteleraz eta euskaraz egin neurtitzak.

Nobiziadoa bukatzean eginiko botoak urtean bitan berritu ohi zituzten eta, hori zela kausa, Erretorika ikasle guztiak behartuak zeuden guztien gelaz-gela pasatzen zen kuaderno batean poesia bat idaztera, aurreko egunetan moldatua, noski, ez bertatik bertara asmatua. Loiolan daude gordeak urte askotako halako kuadernoak. Haietatik hartu eta argitaratu nuen behin Orixek parada bertsuan gerkeraz eta are hebreeraz eginiko bat, besteak beste. Orain bada, Errege egun inguruan "De laudibus castitatis" gai harturik latinez EGLOGA bat eiho zuen gure Aranak. Garagarrilean Aita Jauregi Probintzial berriaren bisita hartu zutelarik, hari ere OCTAVA REAL bat dohatu zion eta igandero izaten zuten, nahiz eta Junioradoa atzean utzia izan, gerkera eta latina lantzeko —eta lantzeko modurik onenetakoa neurtitzak egitea zen— "Academia de lengua" zeritzaten eskola.

Lehen Manterola jaunak Doktoratua bezala, uztailaren 13an Pedro Aldalur azkoitiarrak Eliz-araudi edo Canonesko lizenziatura atera zuen, horretarako

agiriko azterketa bat eginez. Han izan zen entzule —nola ez!— gure Azkoitiko seme Jose Inazio.

Ezin hobeki etorri zitzaizkion ikasturte latzaren nekeak arintzeko, irailaren hasieran Salamankatik gertu dagoen Nuestra Señora del Cueto deritzan tokian izandako udako oporrak. Hango "leche, fresas, paseos" gogoratzen zaizkio batik bat. Bai halaber Ermita hartako aldare nagusiko burni-hesian irakurri zituen bertsoak:

De aqueste campo tesoro
De todo el cielo alegría
De tierra exempta María
Se escribe con letras de oro
Dulcemente se penetra
Que en gracia y hermosura
Como flor es fina y pura
MARIA al pie de la letra.

Oporretatik itzuli, ia segidan hileroko gogojardunak amaitu eta biharamunean hasten du Jose Inaziok ikasturte berria (1859-60), Filosofiako azkena. Urteberri arteko konturik ez du kontatzen; bai haatik Gabonak ondoren berriz eskolak hasi eta aita Vinaderri bere ikasleek egin zioten Akademia batean latinezko bi olerki egin zituela berak ere. Egun haietakoxe batean hartua izan behar zuen Loiolatik bere anaia Jose Antoniok idatzita eskutitz bat, non esaten baitzion: "Empiezan a sacar los Tercios Bascongados para la guerra de Africa" eta bospasei hilabeteren ondoan beste bat berarena, esanez: "Banderas de los Tercios Bascongados depositadas en Loyola". Hori dela eta, "hizo por estos días en verso José Ignacio una pequeña improvisación sobre «Los españoles en Marruecos»", baita bertsotxo batzuk ere beste nobizio batek botoak egitean.

Filosofia ikasketak amaitzean, hiru urte haietan ikasitako gai nagusi eta oinarrizkoenen "De universa Philosophia" zeritzan programa bat ematen zizuten Agintariek. Han egon ohi zen bildua 50-edo ikasgaietan, "Thesis" izendatuetan, Filosofiaren muina eta mamia ("53 en total", dio, "contando astronomía, física, etc."), eta hura gainditzea beharrezko zen, Eliz-mailan Lizentziatu izateko. Ongi eta ohorezki garaitu zuela diosku Jose Inaziok garagarrileko egun batean eta Jainkoari eskerrak emateko latinezko Oda bat egin zuela.

Albiste txar zaparradak eraso zion Azpeiti-Azkoititik batbatean. Ikusi dugu lehen ere haren etxean heriotzak herrestan gertatu zirela, ama, esaterako, gazterik hil zitzaiola, aita Bilbon zen bitartean, eta bigarren aldiz ezkondutako aitak bere bi alabatxo, umetan hilen, bideari jarraitu ziola aurki kolerak harrapatuta. Bada orain, Paula izebaren eskutitz batek diotsa bere senar, gure Jose Inazioren izen bereko osaba Jose Inazio hil dela, baieta honen alabatxo Dolores 14 urtekoa ere. Hori bakarrik ez, Jose Joakin anaia, herri apaiz izateko ikasketak egiten ari zena, Azkoitian hil zela uztailaren 3an eta azkenik bigarren ama ere, ugazama, Josefa Antonia Udakiola hil berean hil zela.

Ikasturtearen nekeak arindu behar bazituen lehen, orain horietaz gainera albiste triste haiek bihotzean egin zioten zauria sendatzen eta barneko bakea aurkitzen saiatu behar zuen ahaleginean. Ez zioten alde horretatik kalterik egin igaro udako toki berean, Santa Maria del Cueton, eman zituen opor-egunak. Han ere tolestatu zituen zenbait bertso: bat Teologiara aurreratu zitzaizkion lagunei eginiko bertsozko karta; bestea San Inazio egunean Loiolako Santuari egina. Nonahi kanporatzen zaio bor-bor olerki eta neurtitzetarako duen grina ezin hezizkoa eta bizi guzian iraungo diona.

7. CARRIONEN (1860-63)

Etapa berriari ekiteko garaia heldu zaio gure Jose Inaziori. Hornitu da gazterik asko letrazko jakinduria ez gutxiaz. Bete berriak ditu 22 urte eta orain arte beretzat ikasten aritu izan bada, ondoko urteetan inori irakasten aritu beharko du. Hau da "maisualdi" edo "maisu txiki aldi" garaia deitzen zaiona. Lagundiak jesuita gaztea igortzen du, Filosofia bukatu eta apaiz egiteko Teologiari ekin aurretik, bere Probintzian dituen ikastetxeetatik batera: ea nola moldatzen den mutiko taldexka bati ikasi dituen gaietatik hau edo hura irakasten.

Palentziako Carrion delako herrixkan Jesuitek orduan zuten ikastetxera bidali zuten, 50 urte handi geroago Orixe ere egingo zutenera, eta ertaineko mutikoei gramatika eta latina eta antzeko gaiak irakastea suertatu zitzaion lehen ikasturtean, 1860-61ean. Abiatu baino lehen abuztuaren 15ean Ama Birjinari Oda txiki bat egiten dio, agur moduan, eta egun bereko arratsaldeko 6etan abiatzen da kotxean bere helbururantz. Ez doa bakarrik, beste bi gazte ditu bidelagun. Biharamuneko goizeko 7etan heldu ziren Valladolida (hala dio Jose Inaziok behin eta berriz izen horren adlatiboa), handik trenez Palentziara eta Fromistara, eta handik zaldi banatan Carriona zuzentzeko, non hartuak izan omen baitziren arraiki.

Han ere olerkiak olerkien gainean eta neurtitzak neurtitzen gainean egiteko parada izango du, batzuetan Jaialdi agirikoetan mutikoen harridura ez txikiarekin. Irailaren 27an bere anaia Jose Antoniok Loiolan Nobiziadu ondoko botoak egin behar dituela? Olerki gaztelerazko bat Jose Inaziok Palentziatik zorionak emanez. Palentziarako Apezpiku berria, Jeronimo Fernandez, hautatu dutela eta bisita egitera joatean, ikastetxeko mutikoek jaialdi bat eskaini nahi diotela zorion eta poz-agurrak emanez? Jose Inazioren bertso saio bat ezin falta. Irailaren 30ean, San Jeronimo egunean, bere santu-eguna ospatzen duela Apezpikuak? Etxeko jesuita guztiak bazkaritan zorionak eman eta Jose Inaziok eta bestek neurtitzak eskaini. Ikasturte bukaeran ohitura dela etxeko eta kanpokoen aurrean Literatur-Ekintza bat egin dezaten mutikoek, beren irakasleek lagundurik noski, txosten, olerki eta lantxo batzuk irakurriz? Urte hartako gaia

"Eliza erasotua eta San Pedro" izan zen eta hartarako bi Oda prestatu behar Jose Inaziok: bata frantsesez eta bestea latinez.

Udako oporrik aipatu gabe, ustez osasunez ongi zebilen seinale, hurrengo ikasturteko eginbeharrak zein izan zituen kontatzen digu: bat, ikasleen begirale jolas-orduetan; bi, maila txikikoetan inoiz eritasunez edo gertatzen ziren irakasle hutsuneak bete, haiek ordezkatuz, eta azkenik lehenbiziko aldiz, guk dakigula, baina gero urteetan zehar ia biziko den etxe guzietan izango duen kargua, hau da, etxeko liburuzain izatea.

Leridatik Jose Escolá apaizak, "Director de la Academia Bibliográfica Mariana" omen denak eskatzen dizkio euskarazko neurtitzak eta, hartu bezain laster, bai berak, bai Aita Probintzialak zorionak ematen dizkiote. Txolarteetarako beste egiteko batzuk kausitu ditu: argazkigintzan aritu, italiera ikasi Don Nicolas Nicolairekin eta litografia pixka bat ere bai Anai Alcalarekin.

Orduarte eginiko literatur-lan guztiak deus ez ziren uda hartan bere gain hartu zuen obrarekin berdinduz: "empieza también a componer la TRAGEDIA DE S. PELAYO". Aurrerago ere izango dugu honen berri, orain hasi baizik ez baitu egin. Olerki samalda darraikio ondoko 1861-62ko ikasturteko hilabeteetan: Abenduko Ama Birjina Orbaingabe sortuaren egunerako; urteoro bezala Eguberrietako arrats luzeetako jostaldi eta antzerkizunetarako; Salamancan ohoreskatu nahi duten Terueleko Apezpiku berri D. Francisco de Paula Ximenezentzat, San Jose egunean bere santu-eguna ospatzen duen Aita Probintzial Jose Maria Jauregirentzat, eta, gehiagoren artean, ikasturtearen amaieran izan ohi zela ikusi dugun Akademiarako "una despedida «ADIOS, CARRION» cantada muy bien por los músicos dirigidos por D. León de Elorza". Berea dela ez dio, baina hala izateko itxura guztiak ditu beste honako honek ere: "Por Julio hizo Arguiñano Pablo imprimir la marcha de S. Ignacio en vasco y castellano".

Hona eta hara Gaztela lehorreko eremu zelaiak arakatuz, mutikoekin txangoak eginik eta, ibili eta ibili, inoiz bazterra jotzen ez duen eguzki ederra hartuz, udako oporrak beste inora mugitu gabe etxean eta etxe inguruan eman, eta ustegabean ikasturte berria hasteko eguna "maisu txiki" aldiko azkena, gainean dute. Ez digu esaten nolako eginbeharrak dituen ikasturte berrian, 1862-63an: eskolak eman, liburutegia zaindu ala zein beste.

Joan urtean bezala Abenduko Ama Birjina Orbangabe sortuaren eguna ezin neurtitz batzuek egin gabe utzi. Aurten neurtitz batzuk baino zerbait gehiago egingo du: "Canción para cantar en el comedor de los colegiales en honor de la Concepción Inmaculada". Leridatik berriz ere D. Jose Escolá bertso eske du eta aurten beste gehiagoren artean Soneto bat igortzen diola diosku, ez ordea euskaraz den, lehen bezala, ala gazteleraz. Pazkoaldian "hubo día de campo en la dehesa a una legua del Colegio".

Hilabete baten buruan bi eskutitz hartzen ditu Azkoititik D. Fernando de Echeberria delako apaiz batek eginak; ez diosku nor den, baina bai zer diotsan: "sobre la versión del Evangelio de San Juan al vascuence. Concurso al efecto con premio por la Diputación, según decreto del 30 de Abril". Beste Anai Chopitea delako batek kartaz galdegiten dio "Eneco, Iñigo, Ignacio" izenen arteko erlazioaz. Zer erantzun ote zion! Puerto Rico-ra destinatua doan Anai Garcia-Frutosi Soneto bat igortzen dio agur eginez.

Ikasturtea amaitu, mutikoak Leonen azterketak egin ondoren nor bere etxera sakabanatu eta Jose Inazio "maisu txiki" aldia osoro bukaturik, Leona doa ongi merezitako oporrak hartzera beste zenbait lagunekin, eguerdiko 12etan abiatuz, "unos a pie, otros en tartana a voluntad... Pasando por Moratinos y San Nicolás llega la caravana, después de pasar el Páramo de Campos en parte a Sahagún a las 7,30 del oscurecer, quedándose en una posada estrecha de mediano nombre, donde no hay camas para todos y se cena gato por liebre". Sahagundik lehen gauan atera eta goizeko 10etan iritsi ziren Reliegora, "en cuya única posada no hay comida alguna y apenas de beber, mátanse gallinas a palos en el corral y se preparan con huevos, y se hace el rancho bueno". (Ezin uka gazteleraz oso egoki idazten duela!). Iristen dira azkenean 29ko arratsaldean, Leongo jesuiten San Marcos Ikastetxe zoragarrira, egungo egunean Eliza eta Ostatu noble-ospetsu denera. "Partido de pelota el domingo, filósofos contra teólogos; ganan éstos...".

Hamabost egun-edo han igaro ondoren, opor-egun luzeagoak hartzeko Sandovala joateko esaten diote, non ematen baititu egun batzuk filosofoekin, beste batzuk teologoekin. Han ditu gehiagoren artean bere lagun min Anai Zesareo Txurruka eta Eugenio Uriarte, filosofia ikasi berriak horiek ere, eta haiekin egiten ditu paseoak eta txangoak inguruko tokietara, batez ere Lancia-ko aztarnategira, non aurkitzen baitute inskripzio zaharra duen katilu bat. Eta orain zer?

8. BERRIZ ERI (1864-1865)

Teologia ikasten hastea dagokio Leongo San Marcos ikastetxe handian eta hiru urteren buruan apaiz egitea. Urteroko zortzi eguneko gogojardunak beti bezala irailaren azken egunetan egin omen zituzten, baina gezurra badirudi ere, ikasturte berriaren lehen eguna, Meza Nagusian "Veni, creator Spiritus" kantatu eta gero, "lectio brevis" izaten zenekoa eta jesuita gaztea Apaiz egiteko bidean ipintzen zuena, ez du aipatu ere egiten.

Azaroaren hasieran Aita Probintzial Jauregiren bisita dute eta, egun batzuen ondoren aldegiterakoan, bazkal ondoko kafea Liburutegiko aretoan hartuz Agur egiten diotenean, Soneto edo Hamalauko bat eskaintzen dio Jose Inaziok. Hil beraren 8an Leongo burnibidea estrainatzen dute hirian hots eta ospe

handiarekin ("son convidados el P. Rector y otros del Colegio") eta gure Jose Inaziok, hori dela kausa, beste Hamalaukoa egiten du. Eskatzen dion edozeini bertsoak egiteko prest dagoela esan behar: Manresatik abenduko 8ko Akademiarako bi olerki eskatzen dizkiote eta igortzen ditu "2 composiciones en verso para un alumno del Colegio".

Eguberriak ospatuz sartzen dira Urteberrian, 1864an. Errege egunez "se tuvo un pequeño Ensayo o Academia de lengua inglesa dirigida por nuestro Profesor de Inglés Hno. Longini, italiano". Beti gazteleraz egiten ibili gabe, italieraz ere egitea oso ongi iruditu zitzaion segurki Jose Inaziori, eta are hobeki, euskaraz ere egiten balitz halako zerbait. Aurrerago biziko den bi ikastetxetan ikusiko dugu asmo hori burutan aterako duela eta asteroko euskarazko eskolak ezarriko eta "saio"-ren bat, berak dioen bezala, agirian egingo.

Aipatu ditugun gaurko Eliza eta Ostatu noble-ospetsuaz gain, bazuten Leonen jesuitek beste "Misioetako ikastetxe" izendatu bat, Loiolan Carlos IIIak, 1767an handik jesuitak jaurtiki eta gero, ezarri zuena bezalakoxea: misioetarako prestatuko ziren apaizak eta erlijiosoak hazi eta altxatzeko ikastetxea. "Las glorias del reino de León" izenpean antolatu zuten ikasturte bukaeran Saio edo Akademia bat eta Aranak ekarri zuen bere aletxoa: ("Discurso preliminar, 3 partes y 25 composiciones; la 12 y 13 recitadas por J.I.A."). Azpeititik D. Miguel Oyarzun apaiz gero jesuita egingo zenak kartatxo bat idazten dio "sobre las canciones bascongadas del caballo blanco de José Gros". Azpeitiko "graziosoren" batek ipiniak, seguru asko.

Maiatza zen eta bere EGUNARIAn ez da zortzi hilabete horietan Teologia hitza bera ere agertu, 1864ko gertaeren berri ematean. Ez digu Teologia ikasten hasi eta ari dela esan, ez zein gai dituen lehen ikasturtean kontatu; eta hara nola jakiten dugun modurik estrainioenean, baietz, Teologia ikasten aritu dela eta ikasi dituen gaietatik bi zein izan diren ere bai. Honela kontatzen du berak: "A fines de Abril cayó gravemente enfermo J.I.A. con ataque cerebral, pero, gracias a Dios, con sangrías por los pies y otras partes y otros medios, salió del trance, quedando sumamente delgado y débil, y fue poco a poco con leche, etc. restableciéndose. Se hallaba muy mejorado a fines de mayo". Eta ia hurrengo lerroan: "Por junio restablecido bastante empezó J.I.A. a repasar las materias de Teología dogmática y moral, pero en los exámenes no se examinó más que de moral, en atención al tiempo pasado por la enfermedad...".

Sei urte igaro dira buruko lehenbiziko odol-kolpeak eman zionetik; biak garai bertsuan, udaberri azkenean, ikasturtearen hondarrean, gaitzak haren gorputza makalenik harrapatu zuen momentuan. Harritzekoa da, halere, zein laster, erabat sendatzen ezpada ere, hobetzen den bederen, eta indarberritzen. Harritzekoa da halaber nola orain, buruko odol-kolpea dela-eta, ia bi hilabete eri egon ondoren, ikasten dugun Teologiako bi gai berrikasten ari dela, nahiz azterketa batarena bakarrik egingo duen. Zorigaitz hori izan ez balu, geldi gintezkeen jakin gabe.

Uda eta oporrak hurbil daudelako eta bere herriko aideak eta giroak, eta batez ere Zumaiako bainuek on handia egingo diotelako, Loiolara joateko esaten diote bere Buruek: "disponiendo los Superiores que para mejorar se pasara a Loyola y de allí a los baños de Zumaya". Abuztuaren 10ean heldu zen Loiolara eta handik egun gutxitara joan Zumaiara beste lagun batzuekin: Aita Goiriena, Garciarena, etab. Ez du denbora alferrik galtzen eta bainuak hartzeaz gain, besterik ere egiten du: arrain batzuk harrapatu eta Austriako jesuiten Ikastetxe Linz deritzan hirikora igorri Aita Hinderkhor (?) alemaniar naturalistari. Leongo lagunek Lanciako aztarnategian egiten ari diren aurkikundeen jakinaren gainean daukate: antzinako inskripzio batzuk eta Domizianoren txanpon bat. Berari Loiolan liburutegiaz ardura dadin agindu diote, beste lantegirik gabe, eta Katalogoan zeregin hauxe bakarrik azalduko da: "curat valetudinem", alegia, osasuna zaintzea.

Loiolako egunak luzeak dira, neguan batez ere, zeregin handirik ez duenarentzat. Hala izan behar 1865. urte hartakoak ere Jose Inaziorentzat. Sartuko zuen ordu mordoxka liburutegia zaintzen eta eskutitzak idazten ere bai, eta hartzen zituenei erantzuten. Ehunka eskutitz aipatzen du bere EGUNARIAn. Egiteko horietan harrapatzen du 1865garren urteak eta Valentzian Zigorraga Jose bere laguna apaiz egiteko dela-eta, Oda bat igortzen dio. Handik egun batzuetara Probintzial berri Aita Labarta Loiolara doala bisita egitera, eta hari ere neurtitzak. Aita Labarta honek denbora gutxi iraun zuen Probintzial; Erromako Aita General Becks-i ken zezan eskatu zion eta hark kendu eta Aita Felipe Gomez ordezko izendatu. Berezi xamarra zen. Nafarroako Artaxonan jaioa, Nafarroa "reino por sí" izendatu ohi zuen. Lagundi guztiko profeso zaharrena zen; ia ehun urte zituela hil zen Madrilen, eroso ostatatua Bergarako Kondesaren etxean.

Hurrengo batean Carriondik idazten diote bere barruan poz emango zion albiste bat kontatuz. Carrionen bigarren ikasturtearen hasieran trajedia bat oratzen hasia zela esan zigun, eta ez genuen gehiago haren berri izan, baina dirudienez ixilean eta izkutuan xarra-xarra jarraitu zen gero ere lanean, zeren hara nola mezutzen duten handik Uztailaren 2an bere "El joven Pelayo" izeneko trajedia antzeztu zutela "con buen resultado".

Abuztuan Isabel II. bere seme-alaba eta ama Cristinarekin datorkie Zarauztik bixita bat egitera. "A la entrada en la iglesia para la misa echó vivas uno de los hijos de Hurtado Mendoza, pero sin ser casi correspondido". Entzun duzue nola Jose Antonio Aranak bere txostenean aipatu dituen eta nola bibliografia aldetik interesgarri direla esan duen Jose Inazioren zenbait obra. Bada horietako bi lanen aipamenak egiten dizkigu Abenduan: "Dic. 1865, 1.º dic., carta del H. Lizargarate desde Roma sobre CLAROS VARONES GUIPUZCOANOS S.J.". Ez ahantz, Jose Antoniok esan digun bezala, 1871an burutu zela liburuaren inprimaketa Tolosan. Bada orain badakigu noizko zegoen iada Jose Inazio hasia liburu hori prestatzen edo materialak biltzen, baieta Anai Lizargarate ere lankide izan zela, Jose Antoniok esan digun bezala.

Beste liburuaren aipamena hau da. Aurreko hitz horien ondoren honako beste hauek idazten ditu: "Id. (latinezko «idem», «halaber» edo, beste eskutitza ere hartu duela, alegia) de Churruca desde León sobre el TRATADO DE VERSIFICACION BASCONGADA". Nolanahi aditzen direla hitz hauek, bistan da gutxienez irakasten digula lan hori ere Jose Inazioren asmoen arteko bat zela eta buruan zerabilela. "De Churruca desde León sobre": agian hitz horiek Anai Txurrukaren jakin-nahia bakar-bakarrik adierazten digute, eta ez nahitaez orduko "TRATADO" delako hori egina zegoela, baina nolanahi ere 1872ko data, nik FONTES-en 1992an argitaratu nuenak daramana eta Jose Antoniok errepikatu diguna, bukatua zegoeneko data dateke segurki, eta ez inola ere Jose Inazioren buruan eta gogoan —gutxienez!— ernatu zenekoa. Ez da dudarik 1865ean iadanik ernatua zuela eta Anai Txurrukak horren berri bazuela.

9. LOIOLAN GELDI (1866)

1866ko urtarrilari Loiolan ematen dio hastea. Frantziako Toulouse probintziako Aita Nagusia iristen da egun batzuetarako Loiolara eta bazkalondo batean kafea hartzean frantsesezko bertso batzuk egiten dizkio. Baina berea ez da frantsesa, eta ez gaztelera, euskara baizik, eta orain arte ez bezala, EGUNARIAn tarteka-marteka euskarazko zatiak itzurtzen zaizkio.

Manuel de Soreasu Mirakil baserrikoak urtarrilaren 7an 91 urte egin omen zituen, beste batzuen ustez gehiago, eta batbatean euskarara aldatzen du solasa: "Apirilaren bostian karobiko arriya prestatzen zegoan sendo ta pizkor bere ilobakin". Denbora gutxi barru gauza bertsua egiten du; Urtiagaberri baserrira txangoa egin duela esan ondoren, honela dio: "Martitako azpian sortaldean dago Urtiagaberri. Emen bizi dira irukiak: Magdalena, Joxe Mari ta Ventura Gabilondo, ta zazpi-bat urteko senide koxkorrak dira. Beren ama da Agustina de Soraluce ta aita berriz Emeteri Gabilondo".

Albiste txiki multzoa metatzen zaio hurrengo egunetan. Erromatik bi hilabeteren buruan Anai Lizargarateren bi eskutitz hartzen ditu. Azkoitiko Balda baserrian, San Inazioren amaren jaiotetxean, sua izan zen ekainaren 7an: "no hubo gran perjuicio y se sacó fuera el archivo". Azkoitian Gipuzkoako Batzar Nagusiak egon ziren bilduak eta uztailaren 7an Loiolako jesuita gazte ikasleek literatur Saio bat eskaini zieten: "Acuden los Junteros y otra mucha gente principal del país y de fuera. Sale bien". Jose Maria Lardizabalen eskutitz bat hartzen du Zaldibitik. Gero harreman handiak izango dituzte —ez ahantz Loiolatik erbestera bidean Lardizabalenean egin zutela geldialdia Irunen; lehendik familia ezaguna zuten seinale—. Abuztuaren lean, bezperan, San Inazio egunean, baino festa handiagoa izaten den egunean, Loiolan sermoia On Bizente Manterolak egin zuen eta Jose Inazio Aranak Oda bat moldatu goizeko Meza Nagusia gai zuela. Manterolari berari bidali omen zion gero. Leongo bi laguni igortzeko "Ama Birjinaren Konzepzioko Ofizio laburra" delako liburuxka li-

tografiatzen du Loiolan; ez du esaten, baina berak euskaratua, dudarik gabe. Erreskada luze hau amaitzeko, Urriaren 12an Hazparneko apez Juan Leon Lizardi euskaltzaleak bisitatzen du.

Hemen amaitzen da, 1866. urtearen bukaeran lehen esan bezala, Jose Inaziok berak EGUNARIAren lehen partea deritzana. Berrogeita zortzi orrialde izan dira guztira. Horrenbestez Jose Inazioren aurtzaroa eta gaztaroa ongi ezagutu ditugula esan dezakegu. Ezagutaraz ziezazkigukeen onenak ezagutarazi dizkigu. 28 urteko gizaseme egin da.

Baina Jose Inazioren izaeraren beste zenbait alderdi ere ezagutu dugu, dudarik gabe. Bertsozaletasuna eta bertsogintzarako erraztasuna, euskaraz nahiz gazteleraz hainbeste olerki, Oda nahiz Egloga nahiz Octava Real, oratzeko. Izpiritu ernea, 28 urterekin Bibliografiari eta Poetikari dagozkion bi liburu hasiak edukitzeko. Hurrengo lanetan hobeki ezagutuko dugu, halere.

JOSE IGNACIO ARANAREN "RESEÑA HISTORICA DE LA LENGUA CANTABRA O BASCONGADA". PERTSONA-IZENEN ZERRENDA

Endrike Knörr,
Iratxe Zorrozua,
Nerea Larrañaga eta
Leire Vergara

"Uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1880". Hitz hauetaz hasi zuen Luis Villasantek José Ignacio Aranari eskaini zion atala (1). Eta arrazoi osoa zuela ezin uka daiteke. Euskara eta literatura ongi ezagutzen zituen Aranak, bere garaian gutxik bezala, zalantzarik gabe.

Bi lan nagusi burutu zituen euskal literaturaz José Ignacio Aranak. Haietako bata argitaratu gabe dago oraindik: *Ensayo de una bibliografía bascongada*, Euskaltzaindiaren liburutegian dagoena. Bestea argitaratu zuen, titulu honekin: "Reseña histórica de la lengua cántabra o bascongada", eta Henaoren *Averiguaciones cantábricas* birrargitaratu zenean, 1895ean, 6. liburukiaren eranskinean ezarri zuten, euskarari buruzko Aranaren beste zenbait lanekin batera (2).

"Ilustración II" izena daraman parte honek halako zirriborro itxura du, inondik ere. Lekukotasun zaharrenen aipamenak ageri dira aurrenik, idazle zerrendari ekin baino lehen, baina erditsuan gramatikaz eta fonetikaz mintzo da egilea, azken aldean idazleen gainean berriro aritzeko. Zirriborrotasuna gorabehera, ordea, anitz dira hogei orrialdeko lan honetan aurkitzen diren berriak eta xehetasunak.

Zerrenda soilak argi erakusten du Aranaren jakituria. Tresna eta bitarteko gutxi izaki, harrigarria da zinez eskuratu zuen informazioa. Hango eta hemengo idazleen izenak dira, bai eta ikerleenak (Ribary, Luchaire, adibidez). Gainerakoan, garbi dago ondoko euskalaritzan kasu gehiago egin balitzaio lan honi, ilunpean gelditu den izkuturen bat lehenago argituko zatekeela. Ikus, esaterako, Baratziartez dioena: "el cura basco-alabés" (3). Argikizun dugu puntu bat baino

(1) L. VILLASANTE: *Historia de la literatura vasca*, 2. argit., Oñati 1979. 283.

(2) Euskal idazleen beste zerrenda bat, askoz laburragoa, sartu zuen Aranak *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz* liburuan (Bilbo 1872).

(3) E. KNÖRR: "Baraziart Duranako semea". *Euskera* 30:1, 1986, 207-214.

gehiago, zernahi gisaz. Adibidez, J. Antonio Butrón y Mújica arabar jesuitaren berri ez omen du inork.

Gizalan guztietan bezala, zer esanik ez, akatsak ditu honek ere. Bernat Etxepare, adibidez, Beraskoizko egiten du Aranak, Leizarragaren sorterria hari egotziz ("el nabarro de Briscur" [sic]), eta Intxauspe lapurtar ("el basco-labortano").

Noiz idatzi zuen jesuitak lan hau? Esaten dituenen zenbait gauzarengatik, badirudi Henaoren birrargitalpena prestatzen ari zenean bukatu zuela. "La reciente obra *Monumenta Linguae Ibericae* de Berlín, 1893", dio, egilea, hots, Hübner, aipatu gabe.

Lehen eskuko argibide ugari aurkitzen da orrialde horietan. Besteak beste direla, Galindez laudioarra, Ruthen liburuaren itzultzailea, ageri da (4).

Gure izen zerrenda egiterakoan Aranaren testua jarraitu dugu zorrozki. Hala ere, irakurlearen mesedegarri hutsak zuzentzen saiatu gara inoiz, bai eta argibidea osatzen ere. Argibide osatzeaz denaz bezain batean, Lopez nafarraren izena sartu dugu, demagun; kasu hauetan kortxete artean ageri da izena. Ponte izenen bat ere erantsi dugu, baina gehienak Aranak berak dakartza.

PERTSONA-IZENEN ZERRENDA

Abbadie, d' , 101,104
Adema, 95
Aguirre, Domingo de, 95
Aguirre, Juan Bautista de, 93
[Aimery Picaud], 89
Aizpitarte, 105-106
Aizkibel, 106, 107, 109
Aldaz, Miguel de, 92
Antia, 94
Añibarro, 93, 106, 107
Arambillaga, 92
Aramburu, Juan de, 92
Arana y Goiri, Sabino, 96, 102
Araquistain, 95
Arbelbide, 95
Archu, 101
Argainarats, Pedro de, 92
Arguinzoniz, Antonio de, 106

(4) E. KNÖRR: "Otro texto de Llodio. El libro de Ruth por Ignacio Galíndez (1872)". J.L. Melena (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. Gasteiz 1985, II, 1055-1062.

Arrese y Beitia, 95
Arrue, 94
Artiñano y Zuricalday, 93
Artola, José de, 96
Artola, Ramón de, 95
Arzac y Alberdi, 95
Arzadun, Martín de, 92
Astarloa, Pablo Pedro, 93, 100, 106, 109
Astarloa, Pedro, 89, 93
Astigarraga y Ugarte, 94, 101
Axular, Pedro de, 92
Azcarate y Otegui, 95
Azcue, Eusebio M.ª de, 94
Azcue, Resurrección M.ª de, 96
Azpiazu, José Antonio, 94
Baratziart, 92
Baroja, 95
Bartolomé de Santa Teresa, Fray, ikus Madariaga.
Bazterrechea, Agustín, 92
Becerro de Bengoa, 108
Belapeire, 92
Beobide, 95
Beriain, Juan de, 92
Berminghan, 94
Bernaola, 94
Bizcarrondo, 95
Bonaparte, 94, 101, 107,109
Butrón y Múgica, Joseph Antonio, 92
Campión, 95, 102
Capanaga, 92
Cardaberaz, 92,100
Chaho, 101, 108
Chourio, 92
Churruca, 91
Claret, 95
Cortés Osorio, 100
Darreche, 94
Darrigol, 101
Dasconaguerre, 94
Detchepare, ikus Etchepare
Dodgson, 107, 108
Duhalde, 94
Duvoisin, 94,101,107-108
Echabe, 100

Echebarria, Ezequiel, 95
Echeberri y Tone, 92
Echeberria, José Cruz, 94
Echeberria, Juan [de Sara], ikus Etcheberri
Echegaray, Carmelo, 95
Echegaray, Jose Vicente, 94
Echenique, Bruno, 95
Echezarreta, 94
Eguren, 94, 101-102
Elizalde, Francisco, 92
Elizalde, Juan de, 92
Elizalde, Tomás de, 94
Elizamburu, 94
Elizegui, 95
Elizondo, 95
Elso, 91
Erro, 89
Etcheberri, Joanes de [de Sara], 92, 100,105
Etcheberri y Tone, Pedro de, 92
Etchepare [Bernat], 92
Etchepare [Pierre], 95
Ezcurra, Pedro de, 92
Ezenarro, Dominga y M.ª Manuela de, 91
Fita, 89, 90, 102
Floranes, 90
Florez, 89, 90
Franchistegui, 92
Galarmendi, 95
Galindez, Ignacio, 95
Garat, Juan Bautista, 94
Garat, S.P., 108
Garita-Onandia, 96
Gasteluzar, 92
Gése, ikus Gèze
[Gèze], 102
Giraldo, 90
Goenaga, 94
Gorostegui, 95
Guerra, Juan Carlos, 96
Guerrico, 94
Guilbeau, 95
Haraneder, 92
[Haramburu], ikus Aramburu
Harispe, 95

Harriet, [Martin], 100
Hervás, 89, 101
Hiriart, 107
Hiribarren,M[artin], 94, 108
[Hübner], 89
Humboldt, [Wilhelm von], 89
Inchauspe, 94, 101
Iñarra, 96
Iraola, 95
Irigoyen, José Francisco, 109
Iriondo, 95
Isascun, Miguel de, 92
Isasti, Lope de, 90, 91, 100
Iturri, 89
Iturriaga, 94, 101
Iturriza y Zabala, 89, 101
Iturzaeta, 95
Iza y Aguirre, 95
Iztueta, 91, 94
Jauregui, Agustín, 95
[Joannateguy], ikus Juanategui
Juanategui, 95
[Lacoizqueta], ikus Lacoizquieta
Lacoizquieta, 109
Lardizabal, 94, 101
Larragan, 95
Larramendi, 88-89, 92, 93, 100, 105, 107, 109
Larregui, 92
Larroca, 95
Lersundi, José, 95
Lersundi, José Antonio, 95
Lizarraga, Joanes, 91, 94
Lizarraga, Joaquín, 94
Lopez, Eusebio, 107
[Lopez nafarra], 92
Luchaire, 102
Macatzaga, 95
[Madariaga], 94
Madina y Uribe, 95
Manterola, José, 89, 95, 102, 103, 108, 109
Marineo Sículo, 90
Marquinez, 106
Materre, Esteban, 92
Meagher, 92

Mendiburu, 92
Michel, Francisque, 104
Micoleta, 100
[Misericordia], Luisa de, 92
Moguel, Juan José, 94
Moguel y Eguizabal, Vicenta, 94
Moguel y Urquiza, Juan Antonio, 89, 93, 94, 101, 109
Moret, 100
Mortara, 96
Munibe, 92
Muguerza, 107
Nonbela, 103
Novia de Salcedo, 107, 109
Oihenart, 92
Olaechea, 92
Orcaiztegui, 95
Oregui, 95
Otaegui, Claudio de, 95
Otaegui, Felipe Aguustín de, 93
Pagoaga, 106
Pauvreu, ikus Pouvreau.
Perochegui, 100
Pott, 109
Pouvreau, 92, 100, 104
Poza, 100
Pradere, 95-96
Ribary, 102
Risco, 89
Rodriguez, 92
Salaberri [de Ibarrola],101
Samper, 95
Santa Teresa, ikus Madariaga
Soroa, 95
Ubillos, 92-93
Ugarte, 109
Unzueta, 94
Uranga, 96
Uriarte, 94
Urruzuno, 95
Urte, 92,100, 104
Van Eys, 104, 108
Velasco, 89
Venegas de Figueroa, 91, 92
Vinson, 102, 104

Zabala, Alfonso M.ª, 95
Zabala, Juan Mateo, 101, 106
Zaldibia, 100
Zengotita, 95
Zuazua, Pío, 105